



# 2018ko laburpena

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA) Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta garapenerako lankidetzaren politikak planifikatzen, kudeatzen, gauzatzen eta ebaluatzen ditu.

Eusko Jaurlaritzaren tresna nagusia da nazioarteko elkartasuna bideratzeko eta tokiko eta nazioarteko eragile ugari giza garapen iraunkorra sustatzeko, eta pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzeko egiten dituzten ahaleginekin bat egiteko. Era berean, herritartasun kritikoa eta aktiboa sustatzen du, tokikotik

abiatuta eta globalarekin lotuta, guztion ongiaren eta herrien arteko elkartasunaren aldeko apustua egiten duena.

Horretarako, sustatzen eta laguntzen ditu Hegoaldeko zein Iparraldeko askotariko eragileen estrategiak, eta azpimarratzen du koordinazioa, koherentzia, eta elkar ezagutza eta ikaskuntza sortzea. Garrantzi berezia ematen die genero berdintasunari, iraunkortasun ekologikoari, eskubideen ikuspegiari, gaitasunen sendotzeari, parte-hartzeari eta antolakuntzari, eta tokikoa-globala loturari.


## → IV. GIDA PLANA 2018-2021

2018ko uztailaren 24an, Gobernu Kontseiluak 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen. Aldi honetako lana hiru helburuen inguruan jorratuko da: lehenengoa, gure politikako subjektuak diren pertsonen eta kolektiboek zuzendua –ZER–; bigarrena, gure inguruan elkartasuna zabaltzeko konpromisoari bideratua –NOREKIN–; eta hirugarrena, gure zeregina gauzatzeko behar ditugun prozedurak hobetzeko –NOLA–.

## → NOREKIN

Nahi dugu lankidetzaren gizarte-oinarria zabaltzea eta Euskadiko pertsona, entitate eta erakundearen elkartasuna eta inplikazioa sustatzea.

Funtzen banaketa eragile motaren arabera:



## → NOLA

Gure jardunbideak eta ikuspegiak berrikuntzaren eta ikaskuntzaren bidetik eraldatzeko apustua egiten dugu, garapeneraren arazoei era egokitu, integral, estrategiko eta koordinatuagoan erantzuteko.

Horretarako, AUZO(LAN)KIDEAK martxan jarri ditugu: izaera ezberdineko hamar ekimen enblematikoen multzo bat da, zeinekin planaren ikuspegiak bultzatu nahi ditugun. Ekimen horien bitartez nahi dugu: eragileen arteko elkarriketa bultzatu, gaitasunak aprobetxatu eta esperientziaren arabera ikasi.


### AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: uraren arloko erakunde arteko programa

Euskadiko lankidetzako eta uraren inguruko erakunde publikoek, El Salvador eta Costa Ricako erakundeekin batera, 2018 urtean ekimen aitzindari bat martxan jarri zuten. Neurri batean berriak diren hainbat elementu biltzen ditu: Euskadiko lankidetzaren eragileen eta uraren eragileen erakunde arteko koordinazioa, Euskadi-El Salvador-Costa Rica arteko lankidetzaren tekniko trianguluarra, eta El Salvador eta Costa Rica arteko Hegoaldetik-Hegoalderako lankidetzaren. Eragileak esperientzia eta jardunbide egokiak trukatu eta prestakuntza ekintzak garatzen daude.

## → ZER



Pertsonen eta kolektiboek —bereziki, baztertuak diren— gaitasunak sendotzea eta haien sustatutako estrategietan laguntzea nahi dugu, giza garapen jasagarria lortzeko eta giza eskubideak bete-betean baliatzeko bidean aurrera egin dezaten.

2018-2021 aldirako IV. Gida Plana hainbat neurri positibo ezartzen ditu lehenetsita ematen zaien alorrean:



## → ZENBAT

GLEAK 2018 ekitaldian 46.533.176,91 euroko aurrekontua izan zuen. Horietatik, 488.605 euro uraren kanonaren % 5etik zetozen. Aurrekontuaren % 99,7 gauzatu zen.



- 1 Euskadi: 6.101.686€ [%13,18] 2 Kolonbia: 4.230.639€ [%9,14] 3 Guatemala: 3.382.472€ [%7,31] 4 Bolivia: 3.012.506€ [%6,51] 5 Ekuador: 2.834.831€ [%6,13] 6 Perú: 2.257.947€ [%4,88] 7 Palestina: 2.041.788€ [%4,41] 8 Honduras: 1.798.283€ [%3,89] 9 Senegal: 1.777.130€ [%3,84] 10 Mexiko: 1.747.076€ [%3,77]
- 11 Kongoko Errep. Demokratikoa: 1.616.113€ [%3,49] 12 Kuba: 1.504.187€ [%3,25] 13 Brasil: 1.448.769€ [%3,13] 14 Nikaragua: 1.357.612€ [%2,93] 15 Ruanda: 1.333.824€ [%2,88] 16 El Salvador: 1.320.125€ [%2,85] 17 India: 1.197.475€ [%2,59] 18 Uganda: 750.835€ [%1,62] 19 Saharako Errep. Arabiar Demokratikoa: 733.072€ [%1,58]
- 20 Libano: 599.980€ [%1,30] 21 Mali: 599.516€ [%1,30] 22 Boli Kosta: 509.088€ [%1,10] 23 Afrika Erdiko Errep.: 500.000€ [%1,08] 24 Kamerun: 461.318€ [%1,00] 25 Txad: 392.143€ [%0,85] 26 Costa Rica: 372.554€ [%0,80] 27 Mozambique: 338.612€ [%0,73] 28 Guinea-Bissau: 200.777€ [%0,43] 29 Siria: 199.981€ [%0,43]
- 30 Nigeria: 199.948€ [%0,43] 31 Paraguai: 189.252€ [%0,41] 32 Venezuela: 178.907€ [%0,39] 33 Madagaskar: 161.184€ [%0,35] 34 Burundi: 156.119€ [%0,34] 35 Pakistan: 151.654€ [%0,33] 36 Burkina-Faso: 132.786€ [%0,29] 37 Kenya: 119.726€ [%0,26] 38 Benin: 108.333€ [%0,23] 39 Dominikar Errep.: 56.419€ [%0,12]
- 40 Etiopia: 54.000€ [%0,12] 41 Togo: 24.452€ [%0,05] 42 Tanzania: 24.452€ [%0,05] 43 Uruguai: 19.171€ [%0,04] 44 Txile: 18.720€ [%0,04] 45 Egipto: 18.540€ [%0,04] 46 Mauritania: 18.540€ [%0,04] 47 Nepal: 18.540€ [%0,04] 48 Filipinak: 6.061€ [%0,01] 49 Haiti: 3.030€ [%0,01]

2018AN ONARTUTAKO EKIMEN BERRIAK (EMANDAKO DIRULAGUNTZAK):  
**46.280.169€**